



EGOERA

Osasuna pertsona guztiei norbanako gisa dagokien eskubidea da, baita kolektibo gisa dagokigun eskubidea ere. Horregatik, kalitatezko Osasun sistema publiko, unibertsal eta ekitatiboa beharrezkoa dugu. Sistema hori indartu eta bermatu nahi dugu Euskal Autonomi Erkidegoan, bertoko herritarrak direlako ardatza eta lehentasuna.

Egiazki ikuspegi integrala eta komunitarioa txertatzea dugu helburu, arreta asistentzial soila gainditzeko. Ondorioz, osasun politikak gainerako politiketan ezartzea planteatzen dugu, gainerako sail eta erakundeekin elkarlanean herritarren eskutik eta parte hartzearekin. Gure helburua gizartearen osasun egoera hobetzea delako, herritar guztiek ahalik eta urte osasuntsu gehien bizi daitezen, mendekotasunik gabe; eta desberdintasunak gutxitzea, hobekien eta okerren daudenen artean arrazoi sozio-ekonomikoengatik, generoagatik, etniarengatik eta abararengatik. Honela, Jaurlaritzaren beste departamentuekin, hala nola, hezkuntzarekin, ongizatearekin, etxebizitzarekin, kirolarekin eta abarreko sailekin harreman sendoa izatea lehentasuna dugu. Hori dela eta, mentalitatea, kultur aldaketa bultzatzea dugu xede, oinarriko zerbitzuetan sustapen eta prebentzio politiketan beharrezkoa den inbertsio eginez.

Horrez gain, gure beste zeregin bat izan behar da, Osasun sistema publikoaren egunerokotasunean diharduten eragile, ordezkari sozial, arduradun politiko eta herritarren arteko elkarriketa, elkarlana bultzatzea, parte hartzea irekitzea, adostasunak bilatzeko. Osasuna izanik gure gizartearen bitarteko kohesionatzaile handiena, bere funtzionamendu egokia ahalbidetu nahi dugu.

Ez da gure asmoa erabaki medikoak hartzea edo eta osasun profesionalen paperean jartzea. Dena den, haiek pazienteekin partekatuta ahalik eta erabakirik hoberenak har ditzaten, bitartekorik hoberenak eta behar bestekoak ahalbidetzea da gure xedea. Azken batean, beraien lana ahalik eta hobekien egin dezaten erraztu nahi dugu; izan ere gizartea eta hori osatzen duten pertsonen osasuna haien eskuetan baitago maila handi batean.

EH Bilduren lan moldea elkarriketa, adostasunen bilatzean eta akordioetan oinarrituko da. Jarraikortasunaren bidetik, etorkizunera begiratuko duten urrats esanguratsuak emanaz.

Guzti horrengatik, aurrerago zehazten ditugun erronkak planteatzen ditugu ondorengo bost bloke nagusitan sailkatuak, nahiz eta haien arteko lotura saihestezinak agertu kasu askotan.

- Osasun Eskuduntzak sendotu, finkatu eta bilakatu, eta gainerako erkidegoekin eta Europako herrialde aurreratuekin elkarlanean.
- Herritarrak -osasun politikaren ardatz- progresiboki kudeaketa sistematan integratuz.
- Osasun maila egokia ziurtatzeko tresnak hobetu: profesionalen lan baldintzak, barne-egitura, sistemaren antolaketa eta elkarlanerako kultura.
- Formazioa, Ikerkuntza eta berrikuntza zutabe bilakatzeko egituraketa eta sarea.
- Tokian Tokiko egoerei eta kolektibo anitzei erantzunak emateko akordioak.

HELBURUAK ETA NEURRIAK



Osasun eskuduntzak sendotu, finkatu eta bilakatu, Europarekiko harrmana bultzatuz.

1. Erronka: Gure osasun eskuduntzak defendatuko ditugu eta ez dugu Espainiako gobernuaren esku-hartzerik eta murrizketarik onartuko.

- Berrordainketa ezartzen duen 16/2012 errege dekretuari aurre egingo diogu. Eta EAEn indargabetzeko neurriak ezarriko ditugu.

- Bitarteko juridiko guztiak erabiliaz.
- Babes sozialetik kanpo geratu diren, eta garrantzitsuak diren botikak identifikatu eta babes sozialaren barruan sartuko ditugu, aurrekontuetako lerro baten bidez.
- Pentsionistei berrordainketak ez eragiteko, laguntzak ezarriko ditugu, beraiekin elkarlanean.
- Berrordainketa indargabetuko dugu.

- 954/2015 erizainen preskripzio bezala ezagutzen den dekretuari aurre egingo diogu bitarteko juridiko guztiak erabiliz, Osasun sailak bere eginez ardura politikoa eta babes juridikoa emanez, osasun profesionali. Lege bat adostuko dugu.
- Gainerako Erkidegoekin elkarlanerako bideak irekiko ditugu.

2. Erronka: Dagozkigun eskuduntzak eskuratu eta ditugunak indartzeko ekimena hartuko dugu.

- Estatuko oinarrizko legeekiko mendekotasuna gainditzen joateko, gure marko legegile eta normatiboa aztertuko dugu. Gernikako Estatutuko 15. eta 18. artikuluetatik abiatuta aurrera egiteko
 - Farmaziako eskuduntza guztiak lortzeko EAEko legebiltzar taldeekin eta eremu eragileekin neurriak adostuko ditugu, lehen urratsean Madrileko gobernuarekin negoziazioa irekitzeko
 - Lan osasunaren arreta sistema publikoan eskaintzeko Estatuko Gizarte Segurantzarekin lan ildoak irekiko dugu. Mutua eta haien finantziazioaren transferentziarako.
 - Nazioarteko osasun sistema publiko desberdinekin, estrategikoak kontsideratzen ditugun alorretan elkarlanerako bideak ireki eta hitzarmenak sinatuko ditugu.
- Soziosanitarioa
 - Osasun Publikoan eta epidemiologian
 - Hizkuntza politika

3. Erronka: Euskal Herriko gainerako eremu administratiboekin elkarlana sakondu.

- Osasunbidearekin sinatutako hitzarmena garatu herritarren osasun-arreta hobetzeko eta I+G+B eta trebakuntzaren alorretan elkarlana handitzeko
- Akitaniarekin sinatua dugun hitzarmena garatu eta sakondu.
- Bidasoako ESI-a mugaz gaindiko ospitalea bilakatzeko Akitania eta Iparraldeko osasun zerbitzuekin elkarlanean, azterketa egin.
 - Eredu eleanitzeko ospitalea bultzatu, Cerdanyako ereduari jarraituz.
 - Mugaz gaindiko profesionalei atea zabalduz.



Herritarrak –osasun publikoaren ardatza– progresiboki kudeketa sistemetan integratuz.

4. Erronka: Herritarrei kalitatezko osasun arreta eskaintzeko, Osasun Sistema Publikoa balorean jarri eta indartu. Horretarako elkarrizketa, negoziazioa eta akordioak sustatzea izango dugu erronka.

- Gainerako alderdiekin Osakidetza blindatzeko oinarrizko akordioak sustatuko ditugu.
- Osakidetzako mahai sektorialaren negoziatorako izaera berreskuratuko dugu.
- Osakidetzak gainerako tokiko erakundeekin, herritarrekin eta eragileekin elkarlanerako espazioak irekitzeko bideak areagotuko ditugu.
 - Osasun Kontseiluak parte hartzeari irekiaz.
 - Batzorde Soziosanitarioak indartuz.
 - Jaurlaritzan sailen arteko elkarlanean sakonduaz.
 - Eskualde, herri zein auzoetan lan komunitarioan sakontzeko formulak bilatuz.

5. Erronka: Pazienteari kalitatezko arreta integrala eskainiko diogu.

- Kudeaketa sistema ezberdinetan herritarren integrazio progresiboa. Hasteko, eta pilotu gisa, kalitate kudeaketa sistema ezarrita daukaten zerbitzu eta erakundeetan.
- Eskualde guztietako herritarrei Osasun zerbitzuetara eta osasun sustapen eta prebentzio programetako ekimenetara sarbidea errazteko eta hurbiltzeko neurriak ezarriko ditugu, arreta berezia eskainiz egoera okerreanean daudenei
- Eskualde guztietan kalitatezko oinarrizko prestazio zorroa definituko dugu eta sortzen diren gidak aplikatzeko bidea eman.
- Lehen arretara aurrekontu handiagoa bideratuko dugu osasunaren promozioan eta prebentzioan erabateko garapenerako.

- Itxarote zerrenden gardentasunean sakontzeko neurriak hartuko ditugu:
 - 65/2006 dekretua aldatuko dugu.
 - Itxarote zerrenden antolaketa eta osaketa definituko dugu.
 - Itxarote zerrendak herritarrek eskura izateko baliabideak zehaztuko ditugu.
 - Itxarote zerrendak murrizteko eta arintzeko protokoloak bideratuko ditugu.

Itxarote zerrenden kontrol eta jarraipenerako bitartekoak bideratuko ditugu.

Itxarote denbora neurtzeko adierazleak identifikatu eta zehaztu.

- Arreta Integratua ahalbidetzeko, diziplina anitzeko taldeak osatu, eta zerbitzuen arteko koordinazioa hobetzeko jarraibide, araudi zein protokoloak bideratuko ditugu.
- Dena delarik ordua, pazientearen segurtasuna ziurtatzeko zerbitzuak eskaini beharreko arreta kalitatezkoa izateko neurriak bideratuko ditugu.
- Herritarren artean informazioa eta osasun hezkuntza areagotu eta zabaltzeko berariazko programak indarrean jarri eskualdeka.
- Zerbitzu bakoitzean, profil guztietako langileekin eta pazienteekin batzordeak osatu; pazienteen arreta, keak bideratzeko adierazleak hobetzeko. Sistema burokratiko hutsetatik urrunduz eta pertsonekin harreman zuzena izateko.
- Lehenengo arretan pertsona bakoitzak bere medikua, emagina, erizaina, ginekologoa eta pediatra izatea.
- Herrialde guztietan, bereziki errehabilitaziorako dauden itxarote zerrendak kudeatu eta murrizteko neurriak hartu. Zerbitzuak birdefinitu, izaera komunitarioa izango duten sistemak integratuz, bereziki kronikoei begirakoak.
- Pertsona bakoitzak hautatutako hizkuntzan asistentzia jaso ahal izatea kalitatea eta segurtasun klinikoa denez, pertsona guztien hizkuntza eskubideak errespetatuak eta defendatuak izateko, neurriak bideratzen jarraituko dugu. (erronka berezitan garatua).

6. Erronka: EH Bilduren ekimenez onartutako bizi-amaierako prozesuan pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeko legegaren garapena.

7. Erronka: Osasun Mentala osasun sailaren agendako lehen lerroan jarriko dugu.

8. Erronka: Lan osasunak gero eta presentzia eta arreta gehiago eskaintzea osasun sistema publiko arretako zerbitzuetan.

- Gaixotasun profesional eta lan arriskuak sistema publikoan integratzeko lan ildo ireki.
- Ebaluazio sistema abian jarri Gizarte Segurantzarekin lanean diharduten mutuen bitartekoen eta emaitzak aztertzeke.
- ESI mailan, prebentzioko 4 diziplinak jasotzea, 25 langiletik beherako enpresen lan prebentzio eta lesio profesionalen arreta Osakidetzak eskaintzeko. (Bere kostua enpresek finantzatua litzateke).



Osasun mamila egokia ziurtatzeko tresnak. Lan badintzak, egitura, antolaketa, elkarlana.

9. Erronka: Osakidetzaren bizkar hezurra den plantilla indartu eta eskubide laboralak berreskuratuko ditugu.

- Osakidetzako plantilla estrukturala zabaldu, Osakidetzaren proiektua jasagarria eta bideragarria egingo duen bestekoa. Momentu honetan 25.807koa da.
- Plantilla funtzionalak hilabetetik hilabetera duen aldakortasun nabarmena egonkortu, eta areagotzen ari den prekarietatea errotik moztu.
- Suntsitutako 3000 lanpostuak berreskuratzeko legegintzaldiko plangintza egin eta gauzatzeko akordioak bilatuko ditugu. Legegintzaldiko lehen sei hilekoan.
- Belaunaldi aldaketarako plangintza zehaztu eta abian jarriko dugu. (2016ko maiatzean EH Bilduren ekimenez onartua).
 - EHUrekin neurriak adostuaz.
- Plantillaren behin-behinekotasun tasa altua murriztu, eta Osakidetzako plantillaren egonkortasunean sakontzeko neurri desberdinak ezarriko ditugu:
 - Osakidetzan indarrean dauden kontratazio sistema prekarioak kenduko ditugu: lan pilaketagatiko kontratuak...
 - Osakidetzan kalitatezko enplegua bermatzeko kontratazio sisteman neurri zuzentzaileak indarrean jarriko ditugu.
 - Legezko habilitazio baten bidez EPE-ak gaindituak dituzten langileak lanpostuetan finkatzeko.
 - Kalitatezko zerbitzua eskaintzeko Kontratazio luzeak egiteko sistemak ezarri.
- Ordezkapenak lehen egunetik egiteko, sistema arinduko dugu.
- Lanbide Garapenaren eztabaida irekiko dugu.
- Nahi duenarentzat urte sabatikoa hartzeko aukera ezarriko dugu (Hezkuntzan egiten den baldintza beretan): 4 urte lan eginda %80 kobratzen, 5. urtean lan egin gabe %80 kobratuz.
- Osasun sistema publikoak garai berrietara egokitzen joateko behar dituen profesionalen profil berriak birpentsatu eta adosteko akordioak sustatuko ditugu.

10. Erronka: Berdintasun Plana egingo dugu (EH Bilduren ekimenez 2014ko abenduan onartu zen, baina gobernuak ez du egin).

- Diagnostikoa bukatua ez badago, bukatu.
- Plana egin.
- Legegintzaldiko bigarren ikasturteko aurrekontuekin abian jarri.

11. Erronka: Osasun Plana (2013 – 2020) egikarrituko dugu.

- Osasun Publikoaren aurrekontuak izan duten jaitsiera buelta emango diegu eta, osasun politikak herri eta eskualdeetan lantzeko programetarako inbertsioa areagotuko dugu.
- Sailen arteko aurrekontuetan diru lerro bateratuak ezarriko ditugu.
- Giza baliabideak indartuko ditugu.
- Tarteko adierazleak ezarriko ditugu. Hemendik eta 2020ra, urtez urte adierazleak egutegi batean zehaztuko ditugu.
- Batez ere, kirol zuzendaritza eta gizarte zerbitzuekin “mugi” planen baitako proiektuak EAEko eskualde guztietara zabaltzeko egutegia zehaztuko dugu lehen sei hilekoan.
- Arreta Goiztiarraren dekretua garatzeko eta ondorioz hiru herrialdeetara unitateak zabaltzeko hezkuntza eta gizarte zerbitzuekin elkarlanean baliabideak bideratuko ditugu.

12. Erronka: Osakidetzaren barne antolakuntza eta funtzionamendua egokituko dugu pazientearen arreta hobetzeko.

- Ebidentzia zientifikoan oinarritutako gida klinikoak sortu eta erabiltzeko bideak zabaldu. Gidak bilakatzeko elkarte zientifikoetatik herritarrenganaino betebeharrak zehaztu.
 - Protokolo eta funtzionamendurako akordioak garatuz.
 - Zirkuituen bizkortasuna eta eraginkortasuna bilatuz.
 - Lehen arretatik, lehenengo momentutik dagokion espezialistarengana bidali eta espezialistak berak jarraipena egiteko protokoloa ezarri.
 - Itxarote zerrenden adierazleaz gain, bestelako adierazleak aintzat hartuaz.
- Lehen arreta indartuko dugu, Etenik Gabeko Arreta Guneak dauden anbulatorioetan ekografoa eta sendaketak egiteko zerbitzua jarriaz.
- EGA-ak erresolutiboagoak bilakatzeko, formakuntza eta integrazioa indartzeko (lehen arreta eta larrialdiekin). Akordio eta protokoloak sustatuko ditugu.
 - Etxez etxeko arreta Etenik Gabeko Arreta Guneen esku geratuko da eta ez enpresa pribatuen esku.
- Akutuen atentzioa hobetzeko planteamenduak egingo ditugu:
 - Definitu pazienteen fluxua, atentzio puntuak eta haien arteko koordinazioa, pertsona batek atentzio medikua behar duela pentsatzen duen momentutik (etxean, kalean, lantegian, eskolan...) atentzioa ematen zaion tokietara arte (EAG, lehen arreta, emergentziak, ospitalea)
 - Larrialdi pediatrikoen atentzio integrala, pazienteen fluxua detailatuz eta maila ezberdinetako atentzio guneak koordinatuz
 - Urteroko epidemiak artatzeko guneak eta pertsonala egokitu, bai nagusi bai gazteetan. Horrela, dugun informazioa ekintza bilakatuz.

- Larrialdiak artatzeko hezkuntza zentro bat sortu, osasun maila guztietan lan egiten duten profesionalak egoera akutu baten aurrean (bai gaixotasuna bai istripua) egin behar direnak era egokitu batean egiteko. Simulazio zentroen erabilpena handitu eta hobetu. Osakidetzako zein kanpoko profesionalentzat.
- Katastrofe plana diseinatu, bai kanpo katastrofea (hegazkin edo tren istripua, adibidez) zein ospitale barnekoa (sutea, esate baterako).

- Erakunde Sanitario Integratuen ebaluazioa egingo dugu. Horretarako inplikatu guztiekin prozesua eta adierazleak adostuz.
- Indargabetuko dugu momentu honetan Osasun Sailak, ondoren zehazten dugun dekretua, onartua baldin badauka:
 - EAE-ko zerbitzu sanitarioetako erakundeen egitura-antolamendua eta kudeaketa klinikora unitateen funtzionamendu eta eraketa araubidea arautzen duena.
 - Izendapenak egiteko prozedura eta irizpideak arautzen dituena.
- Bateriaezintasun araudia sakon aztertu eta behar bezala ezarriko dugu.
 - 2010eko ekainak 16ko osoko bilkuran onartutako, eta Osasun Saileko osasun zerbitzuen kontratazioko irregulartasunei buruzko ikerketa batzordeko irizpenean jasotako gomendioak, beteko ditugu.
 - Osakidetzan ardura postuetan dauden, eta osasun pribatuan ere lan egiten duten profesionalak identifikatzeko auditoria egingo dugu.
 - Osasun sistema publikoaren ardura postuetan sistema publikoaren alde hautua egin duten profesionalak izango ditugu.
- Osasun Sailak Osasun eremu pribatuarekin dituen hitzarmenak berrikusiko ditugu, eta hitzarmenatarako irizpideak argituko ditugu.
 - Kolaborazio publiko-pribaturako irizpideak aztertu eta egokituko ditugu.
 - Pribatizazioari ateak itxiko dizkiogu. Osasun arretaren baitan Osakidetzako zerbitzu guztiak kontsideratuz.

Tolosaldea

Zaintza Aringarrietako planean

Garbiketa, sukalde eta mantenimendua

Eibar

Urduliz

Larrialdiak (Elgoibar eta Tolosako euskarri aurreratuak)

- Opor sasoiatarako planifikazioa egiteko akordioa sustatzeaz gain, neurriak bideratuko ditugu, pazienteak behar bezala artatzeko, baldintzak egon daitezen pertsonal eta baliabide aldetik.
 - Aurrekontu eta kontratu programan kontutan izango dugu: Oheak behar adinakoak izateko; zerbitzuen agendak ez ixteko; pertsonala ordezkatzeko.
 - Osasun sailak osasun zerbitzuak eskaintzeko duen hornikuntza, kontratu programa, Erakunde Sanitario Integratuentzat bereganatu beharreko arrisku ez bilakatzeko neurriak aztertuko ditugu.

- Autokontzertazioa murrizten jarraituko dugu.
- Arratsaldeko txandak normalizatuko ditugu.
- Lan baldintzak, langileen bizi kalitatea, eraginkortasuna hobetzeko, gainerako lanbideetan bezala, txandako lan orduak ezartzea aztertuko dugu.
- ESI-etatik hornikuntzarako egiten diren erosketa, behar materialak... hemengo sare produktiboarekin egiteko, al den heinean, plangintza ekonomiko bat egingo dugu sustapen ekonomikorako sail eta enpresa txiki eta ertainekin.
- Kalitate batzordeak osatuko ditugu, profil guztietako langilez osatuak, baita garbitzaileak ere. Pazienteak ere parte izango dira eta zerbitzu pediatrikoetan familiak. Beraiek kudeatuko dituzte item-ak eta kexak.
- Telemedikuntza eta komunikazioko bitartekoak txertatzen joango gara, arreta sistemetan. Erreferentziarako ospitale nagusietatik urrunen dauden eskualdeetatik hasita: Leza, Mendialdea, Karrantza eskualdeetan esaterako.
- Etxez etxeko zerbitzua ordenatu eta kudeaketa eredia definitu, eskualde guztietan sarbidea errazteaz gain, ekitatea eta kalitatea bermatzeko.
- Gure ospitaleetako jantokietan elikadura osasuntsua ahalbidetzeko lan ildoarekin jarraituko dugu: produktu ekologikoak sustatuz, ekonomia hurbila eta bertokoa bideratzeko sukaldean eta jantokien kudeaketa eredia aldatzeko ekimenak planteatuz.
- Nerabeen atentzio integrala birplanteatu eta bilakatzea planteatzen dugu – hezkuntza, prebentzio eta osasun sustapen ikuspegitik- ahaztu handienetakoa baita.
 - Osasun sustapena, sexu heziketa droga guztiekiko kontsumoei buruzkoa.
 - Nerabeak nortzuk eta non izan behar diren artatuak (esate baterako, adin muga ezberdinak dauden toki ezberdinetan pediatria aldera edo nagusien aldera joateko)
 - Nerabeak behar duten atentzioa emateko formakuntza ziurtatu (adibidez, koma etilikoak behar duena tratamendu mediku baino askoz gehiago da)
 - Tratu txarrak (bullying, abusua,...)
- Emakumeen osasun ikuspegi integrala agendaren lehen lerroan jarriko dugu.
 - Abortu eskubidea bermatzeko.
 - Zaintza arloarekin loturiko osasun behar guztiei arreta berezia eskainiaz.
- Migratzaileen osasun beharrei arreta jarri.
 - Osasun-zentroen medikuen artean paziente migratzaileen banaketa orekatua.
- C hepatitisaren duten gaixoak ahalik eta eperik laburrenean tratamendurik eraginkorrena eta egokiena jaso dezaten neurriak adostuko ditugu.
- Azukrea neurtzeko sentsoarea estaldura sozialean sartzeko aukerak aztertu.

13. Erronka: Osakidetza euskalduntzeko bidean sakonduko dugu.

- EHUko unibertsitatearekin medikuntza, fisioterapia, erizain ikasketetan euskaraz ikasi nahi duten ikasleei sarbidea bermatzeko; ikasketak euskalduntzeko; MIR, EIR EAeko beharretara egokitzeko:
 - Hizkuntzaren garrantzia graduko zein gradu osteko formakuntzan txertatu, zeharka eta ikasgai/ikasketa gisa.
 - Hizkuntza eta osasun arreta uztartzen duten ikerketa lerroak bultzatu.
 - Ikasleak euskarazko lerroak aukeratzera adoretu.
 - Ikasle erdaldunak euskara ikastera adoretu, sentiberatu.
- Osakidetzako langileak euskalduntzeko lan toki bakoitzean trebakuntza eskaintzeko neurriak ezarriko ditugu.
- Lanbide Heziketarekin hitzarmena sinatuko dugu ikasketak euskaraz eskaintzeko.
- II. euskara plana betetzeaz gain, ondorengo lan ildoetan neurriak proposatzen jarraituko dugu:
 - Osasun saila eta Osakidetzako ardura maila desberdinetan.
 - ESI (Erakunde Sanitario Integratueto) euskara planak bukatu, egin eta indarrean jartzea, baliabideekin.
 - Pertsonala. Kontratazio politikak, ordezkapenak.
 - Sentsibilizazioa, kanpainak, Komunikazioa, iruditeria...
- Historia klinikoa euskalduntzea. Odol, gernu analisiak; ekografiak.
- ESI guztietan zirkuitu euskaldunak ezartzea.
- Osasun Sailak eta Osakidetzak egiten dituzten hitzarmen, kontratazioetan, hizkuntza eskakizunak txertatzea.
- EPE-tan euskara nahitaezko gaitasuna izateko, neurriak hartu.

14. Erronka: Osasun garraioaren –larrialdietakoaren zein programatutakoaren– zerbitzuaren kalitatea bermatzeko, kudeaketa eredia errebisatu eta neurri zuzentzaileak hartu.

- EH Bilduren ekimenez onartutako, EAeko lan hitzarmena sinatzeko neurriak hartu.
- Indarrean dauden kontratuak errebisatu eta amaitu arte, neurri zuzentzaileak bideratu: ikuskaritza, giza baliabide eta baseetan.
- Esparrua erregularizatu eta bateratzen joateko kudeaketa eredia aldatu.
- Larrialdietako osasun garraioan, medikalizatuaren EAeko mapa aztertu eta egokitu horretarako beharra ikusten bada.
- Heliportuen beharrianak eta kokapenak aztertu eta planifikatu.

15. Erronka: Osatek eta Osareanen funtzioa eta izatearen premia berraztertu.

16. Erronka: Beste sailekiko harremana sakondu, batez ere Hezkuntza sailarekin prebentzioan hobetzeko.

- Alkohola eta adikzioak eskola curriculumean sartu lehen mailako hezkuntzatik.
- Istripuak prebenitzeko, lehen sorospenerako bideak Eskola curriculumean sartu lehen mailako hezkuntzatik.
- Lehen sorospenak eta bereziki bihotz-biriketako birpiztearen ezagutza curriculumean sartu.
- Irakasleen osasun trebakuntza hobetu.

4

Trebakuntza, Ikerkuntza eta Berrikuntza zutabe bilakatzeko egiturak eta sarea.

17. Erronka: Osakidetzako langileen, ikasleen eta erabiltzaileen Formakuntza Osasun Sistema Publikoaren lehentasun, zutabe eta gako ezinbesteko bilakatuko dugu.

- Arreta, formakuntza eta ikerkuntza bateratuko ditugu, langileen egunerokotasun eta funtzioetan, osasun publikoan profesional hoberenak izateko eta haien ibilbide profesionala sustatzeko.
- Irakasle laguntzaileen funtzioa arautu behar da. Estatutu bat egitea planteatzen dugu.
- Ikasketak euskaraz lehenetsiko ditugu, Osakidetzara profesional euskaldun eleanitzak sartu eta bertoko gazteak hemen geratu ahal izateko.
- Praktika klinikoak, trebakuntza eta MIRa euskaraz egiteko bideak irekiko ditugu.
- Ospitaleetan lanean dabilzan mediku zein erizainek duten Unibertsitaterekiko harremana birplanteatuko dugu, denak pertsonal unibertsitarioa bihurtuz akordioen bitartez. Horren eragina:
 - Formakuntza eta prestakuntza hobea.
 - Unibertsitatetik lanerako pausoa errazagoa.

18. Erronka: Ikerkuntza Klinikorako sare nazionala sortzeko bidea zabaltzea.

- Ikerkuntza klinikorako sare bat osatu EAEn, bertan dauden ikerkuntza institutuak eta eragileak kontutan hartuz.

19. Erronka: Gaindegiarekin hitzarmena sinatzea, Euskal Herri mailako datuak eta informazioa jasotzeko.



Tokian tokiko egoerei eta kolektibo anitzei erantzunak emateko akordioak.

20. Erronka: Osakidetzan Onkologikoa integratzea (2013ko martxoan, EH Bilduren ekimenez onartutakoa betetzeko).

- Orain arte hitzarmenak emanikoaz ebaluazio bat egingo dugu inplikaturiko eragile guztiekin.
- Lehen urrats bezala, urtero egiten den luzapenean, bermeak ezarriko ditugu integrazio funtzionala gauzatzeko:
 - Donostiako Ospitale Unibertsitarioko eta Onkologikoa zerbitzuen arteko elkarlanerako protokoloak; espazioen eta baliabideen erabilera konpartituak ezarriko ditugu.
- Kutxa Fundazioarekin negoziatzeko interlokuzioa izendatuko da.
- Pertsonalarekin integrazioan hartu beharreko erabakiak zehaztuko dira.
- Hitzarmena 5. urtean bukatzen denerako, integrazioarako jarraitu beharreko urratsak definituko ditugu.

21. Erronka: Tolosaldeko osasun sistema publikoa.

- Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuaren ebaluazioa egingo dugu. Ebaluatu beharreko arloak, eta adierazleak adostuaz, ESI-ko ordezkariarekin (esparru publiko eta pribatukoa) Tolosaldeko udalen, herritarren eta langileen ordezkariarekin.
- Tolosaldeko Erakunde Sanitario Integratuaren egituraren ezaugarriak, prestazio zorroa, kudeaketarako bitartekoak adosteko mahaia sortu eta abian jarriko dugu. Mahaia ondorengo ordezkariarekin osatuaz, Tolosaldeko udalen ordezkariak, Osasun saileko ordezkariak, ESI-ko ordezkariak (esparru publiko eta pribatukoa), herritarren ordezkariak, eta langileen ordezkariak.

22. Erronka: Lezako ospitalea eskualdeko ospitalea izatea planteatzen dugu.

- Eskualdeko herritarrekin Araba Errioxa-Lezako ESiren prestazio zorroa adostuaz.
- AOUarekin akordioak eginez, espezialisten kontsultak egun konkretuetan bertaratzeko.
- Zenbait programetarako garraio doakoa ezarriaz Lezatik AOUra.

23. Erronka: Eibarko ospitalearen funtzioa eta plan funtzionala berrikusi.

24. Erronka: Debagoieneko ospitalearen plan funtzionala berrikusi.

- Larrialdietan eta ospitaleko plantetan giza baliabide duinak bermatu.
- Erresonantzien kamioia kendu eta ospitalean unitatea ireki.
- Zerbitzuen murrizketari amaiera eman.

25. Erronka: Gernika-Lumo ospitalearen funtzioa definitu.

26. Erronka: Arabako ospitale unibertsitarioko berrantolaketak zerbitzuen eta lanpostuen murrizketarik ez ondorioztatzeko kontrol eta sustapen lanak egiten jarraituko dugu.

- Olagibeleko erradiologia zerbitzua mantentzea.

27. Erronka: Araban bereziki traumatologian eta ekografietan dauden itzarote zerrendak kudeatu eta murrizteko neurriak hartu.

28. Erronka: Durangoko EAG aztertu eta urteetako gataskari amaiera eman.

29. Erronka: kolektibo zein elkarte desberdinen aldarrikapen eta eskakizunak entzun, aztertu eta akordioak bilatu.

LEGE PROPOSAMENAK:

EAEko legebiltzarrak Kongresura Zigor Kodearen aldaketa eskatzeko lege proposamena egingo dugu. Eutanasia eta Suizidio lagunduaren despenalizazioa bideratzeko.